Gazteen
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Juventud

# IKASTAROA: Nola sortzen eta kudeatzen dute gazteek nortasun digitala?

## Bigarren edizioa,

2014ko irailaren 22an, 30ean eta urriaren 7an

**Tokia:**
Bilbao, GEB. Uriortu kalea 11, behea
**Ordutegia:**
9:00etatik 14:00etara
**Hizkuntza:**
Ikastaroa gaztelaniaz emango da
**Izena emateko epea:**
Irailaren 1etik 15era
**Izena emateko:**
www.gaztebehatokia.euskadi.net



**datak:**
irailaren 22an
eta 30ean eta
urriaren 7an

**hizkuntza:**
gaztelania

PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

IKASTAROA:

# Nola sortzen eta kudeatzen dute gazteek nortasun digitala?

Gazteen Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de la Juventud

**Interneten komunikatzeko eta hartu-emanetarako ezarri den espazio berria ulertzea (web 2.0 eta sare sozialak).**

## helburuak

- Gazteek IKTei nolako erabilera ematen dieten aztertzea.
- Azturak, jokaerak eta bizipenak gazteen eta gurasoen ikuspuntuetatik aztertzea.
- Intimitatearen eta pribatutasunaren kudeaketan egon diren aldaketa kulturalei buruz gogoeta egitea.
- Gazteen parte-hartze masiboa duten sare sozialek eskaintzen dituzten zerbitzu- eta pribatutasun-baldintzak balioestea.




## metodologia

- 15 orduko ikastaroa, **bost orduko hiru saiotan** banatua. Eduki teorikoak lantzean datza, web edo multimedia materialek lagunduta. Saioek gogoeta- eta eztabaida-gune kutsua izango dute. Era berean, sareko esperientziak trukatuko dira.
  **Ikasle-kopurua: 25 lagun.**

## hartzaileak

**Lehentasuna** izango dute gazteekin **lanean** edo **elkarlanean** (entitateetan, elkarteetan, herri-administrazioetan, enpresetan, ikastetxeetan, boluntario-lanetan...) dihardutenek.

- Gazteen arloko langileak (Gazte Informazioa, udalak, aldundiak, gazteen elkarteak eta beste erakunde batzuk).
- Hezitzaileak.
- Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetako orientatzaileak.

IKASTAROA:
# Nola sortzen eta kudeatzen dute gazteek nortasun digitala?

Gazteen Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de la Juventud

## egitaraua

### 1. Saioa

- Web 2.0ren eta sare sozial birtualen hastapenak: nola eboluzionatu dute bai web-munduak bai pertsonen arteko sozializazioak.
- Sare sozial motak:
  - Bertikalak: gai jakin batzuetan oinarrituak (musika, argazkigintza eta abar).
  - Horizontalak: pertsonen arteko interakzioan oinarrituak (Tuenti, Facebook, Twitter, WhatsApp eta abar).
- Gazteak eta teknologia berriak: nolakoa da bien arteko harremana?

### 2. Saioa

- Zein saretan dabiltza gazteak?
- Zein sare sozialetan egon behar da eta nola? Sareetako bakoitzaren “jokaera-arau ez idatziak” eta nolako hartu-emana izan bertako “biztanleekin”, beren esparruan indarrez sartzen ari garela senti ez dezaten.
- Zer egin dezakegu sare sozialetan? Zer informazio heda daiteke bertan eta nola egokitu behar dugu geure mezua gauden tokira?



### 3. Saioa

- Nola antzematen du gazteak sare soziala? Norberaren irudia taldearen barruan kudeatzea, kontaktuek norberaren jokaerei buruz emandako feedback-a onartu eta prozesatzea edo nork bere burua adierazteko moduak bilatu eta hobetzea.
- Sare sozialen arriskuak eta egokiro erabiltzeko baliabideak, bai eta mundu hori gurasoengana gerturatzeko baliabideak ere.
- Sare horien zerbitzu- eta pribatutasun-baldintzak: zein dira sare sozialek bertan profil bat sortutakoan eta bertan edukiak txertatutakoan ezartzen dituzten “joko-arauak”?

## irakaslea

**Lorena Fernández Álvarez**, Deustuko Unibertsitateko Nortasun Digitaleko zuzendaria.

## entidad organizadora

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA › Gazteria eta Kirol Zuzendaritza › Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

944031645 • gaztebehatokia@ej-gv.es